

## Xedapen Orokorrak

### HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

5916

AGINDUA, 2010eko azaroaren 15ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena. Honen bidez, aldatu egiten da Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2008ko apirilaren 13ko Agindua, Lanbide Heziketako heziketa-zikloetan sartzeko modua arautzen duena.

Otsailaren 26ko 32/2008 Dekretuaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sistemaren lanbide-heziketako antolamendu orokorra ezartzen da, eta ezarri ere lege-xedapen hauetan ezarritakoaren arabera: maiatzaren 3ko Hezkuntzako 2/2006 Lege Organikoaren bosgarren kapituluan eta abenduaren 15eko 1538/2006 Errege Dekretuan (2007-01-03ko BOE); dekretu horren bidez, hezkuntza-sistemaren lanbide-heziketako antolamendu orokorra ezarri zen.

Dekretu horretako 21. eta 22. artikuluetan, hezkuntza-sistemaren lanbide-heziketan sartzeko modua zehazten da.

Maiatzaren 3ko Hezkuntzako 2/2006 Lege Organikoaren 41.1 artikuluan zehaztutakoaren arabera, erdi mailako lanbide-heziketan sartu ahal izateko, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua behar da; goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko, berriz, Batxilergoko titulua.

Aipatutako Lege Organikoaren 41.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, proba-bidez sartzeko aukera ere egongo da.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2008ko apirilaren 13ko Agindua 2008ko maiatzaren 15ean argitaratu zen, eta horren bidez arautu egiten da Lanbide Heziketako heziketa-zikloetan sartzeko modua.

Hura argitaratu eta bi urte igaro direnez, aldatu egin behar da, heziketa-zikloetan sartzeko probek egun biltzen dituzten baldintzetara egokitzeko.

Hori guztia dela eta, hau:

XEDATU DUT:

**Artikulu bakarra.**— Bigarren xedapen gehigarria aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«XEDAPEN GEHIGARRIAK

(...)

## Disposiciones Generales

### DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

5916

ORDEN de 15 de noviembre de 2010, de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, por la que se modifica la Orden de 13 de abril de 2008, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se regula el acceso a Ciclos Formativos de Formación Profesional.

El Decreto 32/2008 de 26 de febrero establece la ordenación general de la formación profesional del sistema educativo en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco, a tenor de lo dispuesto en el capítulo quinto de la Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación, y en el Real Decreto 1538/2006 de 15 de diciembre (BOE 03-01-2007), por el que se establece la ordenación general de la formación profesional del sistema educativo.

En este Decreto, así mismo, se determina en los artículos 21 y 22 el acceso a la formación profesional del sistema educativo.

El acceso directo a la formación profesional de grado medio exigirá estar en posesión del título de graduado en Educación Secundaria Obligatoria y del título de Bachiller para el acceso a los ciclos formativos de grado superior de acuerdo con lo previsto al artículo 41.1 de la Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación.

También podrá accederse mediante prueba de acuerdo con lo previsto en el artículo 41.2 de la citada Ley Orgánica.

Con fecha de 15 de mayo de 2008 se publicó la Orden de 13 de abril de 2008, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se regula el acceso a Ciclos Formativos de Formación Profesional.

Transcurrido un periodo de tiempo de dos años desde la publicación de la misma procede modificarla para adaptarla a las circunstancias actuales que concurren en las pruebas de acceso a los ciclos formativos.

En su virtud,

DISPONGO:

**Artículo único.**— Se modifica la disposición adicional segunda quedando redactada como sigue:

«DISPOSICIONES ADICIONALES

(...)

Bigarrena.— Heziketa-zikloetan sartzeko probak egiteko ezarritako epean, ikasleren batek izena emanda badu erdi mailako ziklo edo hasierako lanbide-prestakuntzako programaren batean, ikasketa horien dokumentazioa aurkeztu ahal izango dio proba baloratuko duen epaimahaiari, agindu honetako 3. eta 4. artikuluek aurreikusitako salbuespenak aplikatzeko. Lanbide Heziketako zuzendariak probaren deialdia egiteko ematen duen ebazpenean zehaztuko da zein eratan eta modutan aurkeztu beharko den dokumentazio hori.»

#### AZKEN XEDAPENA

Lanbide Heziketako Zuzendaritzari ahalmena ematen zaio agindu honetan zehaztutakoa garatu eta aplikatzeko beharrezko xedapenak emateko.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko azaroaren 15a.  
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,  
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.

Segunda.— Aquellos alumnos y alumnas que habiéndose inscrito en la prueba de acceso a ciclos formativos en el período correspondiente, estén matriculados en un ciclo de grado medio o en un programa de cualificación profesional inicial, podrán presentar al tribunal de la prueba la documentación correspondiente a dichas enseñanzas, a efectos de las exenciones previstas en los artículos 3 y 4 de esta Orden, en el modo y forma que se determine en la Resolución de la Directora de Formación Profesional que convoca la prueba.»

#### DISPOSICIÓN FINAL

Se faculta a la Dirección de Formación Profesional para dictar las disposiciones necesarias para el desarrollo y aplicación de lo previsto en la presente Orden.

En Vitoria-Gasteiz, a 15 de noviembre de 2010.  
La Consejera de Educación, Universidades e Investigación,  
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.